

HEZKUNTZA ESKAINTZA AIARALDEAN

Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da aurrematrikulazio kanpaina

OTSAILAREN 3AN HASIKO DA HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO AURREMATRIKULAZIO KANPAINA, MARTXOAREN 18AN AURKEZTUKO DIRA BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK, ETA APIRILAREN 10ERA ARTE EGONGO DA ERREKLAMAZIOAK EGITEKO TARTEA.

Otsailaren 3an abiatuko da 2025-2026 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Jarraitu beharreko egutegia plazaratu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Erakunde publikoak zehaztu duenez, otsailaren 14ra arte izango da eskaerak aurkezteko epea, online edota aukeratutako lehenengo

ikastetxeko idazkaritzan. Martxoaren 5ean plazaratuko da eskatzaileen zerrenda, eta 18an, aldiz, behin behineko onartutakoen zerrenda. Martxoaren 25era arte izango da da azken horri erreklamazioak egiteko epea, esleitutako hezkuntza zentroarekin ados ez egonez gero. Apirilaren 15ean plazaratuko dira behin betiko zerrendak.

HAUR
HEZKUNTZA
LEHEN
HEZKUNTZA
DBH

Edukiz eta publizitatez osatutako gehigarria



ANTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA



Aukerak sortzen

- ✓ HAUR HEZKUNTZA
- ✓ LEHEN HEZKUNTZA
- ✓ DBH

- ✓ BATXILERGOA
- ✓ LH A.A.G. KOA GOI MAILAKO ZIKLOA

Anitzeko Aplikazioak Garatzeko Teknikaria (A.A.G.)

ATE
IREKIAK
(urtarrilaren 27tik
otsailaren 1era)
Aurretiko
hitzorduarekin



MATRIKULA
ZABALIK
OTSAILAREN
3TIK 14RA

INFORMAZIOA ETA BISITAK: 945 384 830 | secretaria@colegiojosefinos.com



Eskola publikoak



Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa

Elkarlanean etorkizunari begira. Etorriko?

2025/2026 IKASTURTEA

MATRIKULAZIO EPEA: OTSAILAREN 3tik 14ra

MATRIKULA EPEA : URTARRILAK 27tik OTSAILAK 7ra



OKONDO ESKOLA

OKONDO
010040aa@hezkuntza.net
945 8981 27
@eskolaokondo
okondoeskola.hezkuntza.net



ETXAURREN IKASTOLA

ZUHATZA
010165aa@hezkuntza.net
945 18 70 00



MENDIKO ESKOLA

AMURRIO
info@mendikoeskola.eus
945 89 04 81



ZABALEKO IKASTETXEA

AMURRIO
zuzendaritza@zabaleko.eus
945 89 04 62
zabalekolhi.hezkuntza.net



ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA

ARTZINIEGA
010010aa@hezkuntza.net
945 39 60 46
www.artekogureama.com



URDUÑA HERRI ESKOLA

URDUÑA
zuzendaritza@urdunaeskola.com
945 38 35 04



LATORRO IKASTETXEA

LAUDIO
010317aa@hezkuntza.net
9456 72 18 74
www.latorroikastetxea.hezkuntza.com



LAMUZA GUZTION ESKOLA

LAUDIO
zuzendaritzataldea@lamuzaeskola.eus
946 72 02 26



ARETA HERRI ESKOLA

ARETA
010027aa@hezkuntza.net
94 428 82 85
www.aretaherrieskola.com



ZARAUBE INSTITUTUA

AMURRIO
zaraobe@zaraobe.net
945 39 00 00
www.zaraobe.net



IES LAUDIO BHI

LAUDIO
zuzendaritza@laudiobhi.eus
945 187028
laudiobhi.eus



EPA HELDUEN ESKOLA

LAUDIO / AMURRIO
010035aa@hezkuntza.net
945 892620
epaudioamurrio.eus



Eskola publikoak

Irakurketaz elkarlanean gozatzeko erronka

AIARALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAK ELKARLANEAN ARI DIRA IKASLEEN ARTEAN IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO HELBURUAREKIN. HAUR HEZKUNTZATIK HASI ETA BATXILERGO MAILARAINO, ELKARREKINTZAN DAUDEN PROIEKTUAK GARATU DITUZTE, IKASLE ETA LIBURUEN ARTEKO DISTANTZIA MURRIZTEKO. FORMATU FISIKOAREN GARRANTZIA ETA FAMILIEKIN HARREMANA GAKOAK DIRA.



Aiaraldeko ikastetxe publikoak elkarlanean ari dira ikasleen artean irakurzaletasuna landu eta sustatzeko. Etapaz etapa, eta maila bakoitzean trataera desberdina eskainiz, irakurketarekin gozatu daitekeela erakutsi nahi diete ikasleei.

Kezka konpartitua

Eskualdeko ikastetxe publikoek kezka bera dute: irakurketarako ohiturak behera egin du. Honen eragina dute Audio eta Zaroabe institutueta nabaritu dute bereziki. Izan ere, ikasleen ulermen gaitasun faltak zaildu egiten du, besteak beste, Batxilergo mailako testu konplexuen lanketak.

Digitalizazioak ere eragin nabaria izan du irakurzaletasunaren eboluzioan. Gazteen artean komunikazio eredu aldatu egin da, eta irudiak hartu du pisua irakurketaren eta idazmenaren kaltean. "Aro digitalean oso ohituak gaude jasotzera. Irakurketa, ordea, aldebikoa da; arreta eskatzen du, jasotzeko eman ere egin behar da, pantaila baten aurrean baino arreta gehiago eskaini behar diogu", adierazi dute eskola publikoko irakasleek. Maila goiztiarrenetan ere nabari dira digitalizazioaren ondorioak, hala nola, pantaila digitaletara ohituta dauden haurrek ipuinak zabaltzeko duten ezintasuna.

Arazoaren erroa identifikatuta, elkarlanean jardutera ekin diote Aiaraldeko eskola publikoek. Liburu fisikoen erabilera lehenetsi dute irakurzaletasuna maila guztietan garatzeko ezinbesteko tresna gisa, eta familien ahalduntzea ere sustatu dute, prozesuan bidelagun izan daitezen.

Ahokotasunetik testu konplexuetara

Mailaz maila landu beharrekoa da irakurzaletasuna, etapa bakoitzean behar desberdinei erantzunez. Eboluzio horretan hizkuntzak berebiziko garrantzia du, eta hor jarri dute fokua Haur Hezkuntzako mailetan: ahokotasunaren lanketan. Hizkuntzarikgabe ez dago irakurketarik, eta, beraz, oinarri sendoa eraikitzea dute helburu heziketa zikloko etapa goiztiarrenetan. Nola? Bada liburerekin kontaktua eta maitasuna lantzea da gakoa.

Bide horretan, Bularretik Mintzora proiektua garatu dute eskola publikoek, "irakurketaren lehen urratsak familian eta komunitatean sustatzeko". Proiektuak elkar harremanetan jartzen ditu eskolak eta udal-liburutegiak, azken horietan gurasoek eta haurrek elkarren artean ipuinak partekatzeko gune atsegin bat sortuz. Bertan irakurritako ipuinak eskolara eramanez eta gainerako gelakideekin elkarbanatzen dituzte. Esperientzia honek "irakurketari dimentsio soziala" ematen diola azpimarratu dute Haur Hezkuntzako hezitzaileek.

Halaber, familiek prozesuan duten papera ere azpimarratu dute.

Irakurketa gaitasunaren garapena LHko 4. mailara arte luzatzen den prozesua da. Bularretik Mintzora proiektuak urratutako bideak, Motxila Ibiltaria deituriko ekimenarekin du jarraipena Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailetan. Liburuz beteriko motxila etxera eramaten dute ikasleek gurasoekin elkarbanatzeko. Mota guztietako liburuak sartzen dituzte motxilan: eleberriak, komikiak, ipuinak, atlasak... "Helburua ez da liburu oso bat irakurtzea, baizik eta gogoko dutena irakurtzen gozatzea".

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere irakurketa planak jarri dituzte abian eskualdeko Audio eta Zaroabe Institutuetan. Plataforma digitalen bidez irakurzaletasuna lantzeko proiektuez gain, paperezko formatuari ere berebiziko garrantzia eman diote; urteetan liburutegiak pisua galdu dute, eta horri buelta eman nahi diote Aiaraldeko ikastetxe publikoetan, ikastetxeetako liburutegietan inbertsio berriak eginez. DBH mailan ulermena lantzea da gakoa, eta horretarako irakurketarekiko afizioa sustatzea dute helburu: "Ikasleak gogoko duen zerbait irakurtzen duen aldiro, inkontzienteki, ulermena lantzen ari da. Gaitasun hori funtsezkoa da DBHn lantzen diren testu konplexuak joratzeko orduan".

Aresketa Ikastola



Etorri gure proiektua ezagutzera!

Matrikula zabalik: Otsailaren 3tik 14ra

Informazio bilera irekia:
otsailak 5_17:00_Aresketa Ikastolan

Ate irekiak EGUNERO
(eska iezaguzu hitzordua)

www.aresketaikastola.eus
9454 89 03 60

Gurean lekua duzue!

aresketa ikastola

HERRI ONURAKO KOOPERATIBA
ikastolenelkartea



Ikastolok, euskal hezkuntza sisteman ezinbesteko zutabea

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA BIZIBERRITZEKO XEDEAREKIN HERRI EKIMENAREN BIDEZ SORTU ETA GARATU DUGUN PROIEKTUA DA IKASTOLA, ETA IKASTOLEN ARTEKO ELKARLANETIK HEZKUNTZA-EREDU PROPIOA ERAIKI DUENA, EUSKAL HERRIKO ZAZPI HERRIALDEETAN. IKASTOLAK ANTOLAKETA EREDU PROPIOA DU ETA HERRIAREN ETA HERRITARREN ZERBITZURA ARI DA.

Amurrioko Aresketa Ikastolak, laster barru, haren 50. urteurrena ospatuko du. Euskal Herriko beste hainbat herritan bezalaxe, Amurrioko herritar ameslari batzuk ikastola sortu zuten 1977. urtean, garaiko administrazioa iritsi ez eta euren seme-alabei kalitatezko hezkuntza euskaraz eskaini nahi izan zirelako.

Amurriotar askoren gogoan egongo da eraikuntza duina lortzeko "adreiluaren martxa" izeneko aldarrikapena, edota Aresketa Ikastola izan zela herrian bi urteko gelak (Kili-Kolo) sortzen aitzindaria, edota Amurrioko lehendabiziko Udal Haur Eskolaren (Ttanttaka) proiektuaren sortzailea eta kudeatzailea ere izan zela, besteak beste.

Betidanik, ikastolaren titularrak familiak izan dira, beraz, hainbat belaunaldiz osatutako familia handi bat da Aresketa Ikastola (orain gutxi ikastolatik ateratako promozio guztien ikasleak batu ditugu lehenengo promozioen ikasleen 50. urtebetetzea ospatzearren).

Hasierako proiektuari jarraipena eman eta, gaur, irabazi asmorik gabeko herri onuradun erakunde-kooperatiba izendatua da Aresketa Ikastola, herritarrei zerbitzu publikoa emateko jaio zeneko bokazio berberarekin.

Eta gure proiektuaktinko heldu dio urte hauetan guztietan euskalgintzan eta herrigintzan lan eginez eta baita

euskararen normalizazio prozesuan ere, osasuntsu eragin eta beharrezkoak diren beste eragile askorekin elkarlanean arituz (AEK, Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua, Aiaraldea Faktoria, Euskal Wikipedia, ...)

Halaber, herri batek hezkuntza sistema sendoa behar duela sinisten dugu, are gehiago haren hezkuntza egoera gutxituan duenean eta bi estatuen mende -eta, horietako batean bi autonomi-erkidegotan banatuta- dagoenean; edota botere publikoetan unean uneko alderdien interesen arabera hezkuntza-politikak izaten direnean hezkuntza-sistema nazional bat ardaztea eragotziz.

Hezkuntza sistema nazional bat ardazteak herriaren etorkizuna bermatzen duelakoan gaude eta ikastolok hortan, eta zehazki Aresketa Ikastolak Amurrioren, orain arte bezalaxe, lekua dugula uste dugu.

Ikastolak herritarrenak izateak gure autonomia bermatzen du eta autonomia horri esker murgiltze-ereduan aitzindariak gara, digitalki burujabeak izan nahi dugula erabaki dezakegu, euskal curriculum ardatz duen ikasmateria sortu eta edozein beste ikastetxeri eskaintzen diogu -gure bokazioa ez baita geuk sortutakoa geuretzat gordetzea eta ekarpen gisa irudikatzen baitugu-, garrantzitsuak diren proiektuak bultzatzeko aukera dugu

eta beharretara egokitutako kudeaketa propioa burutu dezakegu.

Gaur egungo gizartean gainera, eta autonomia horri esker ere, ikasle zein familien beharrek gero eta ugariagoak eta anitzak izanik Aresketa Ikastolan, pertsona helburu, norbanakoaren bizi proiektua eraikitzen laguntzen dugu eta beharretara egokitzen gara, aukeraz osatutako testuinguru ahalbidetuz eta baliabideak hortara eskainiz.

Hau guztia, Aresketa ikastolan bazkideen arteko lankidetzaren eta elkartasunaren bidez eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen baitan jorratzen da, Euskal Herriko Ikastolak osatzen dugun 114 ikastolok sare sendo bat osatuz, biharko herria eraikitzen lagundu nahi dugu eta. Honengatik guztiarengatik, uste dugu gure hezkuntza-sistemak, oraindik orain, ikastolen beharra duela.

Laburbilduz, Euskara eta euskal kultura biziberritzeko xedearekin herri ekimenaren bidez sortu eta garatu dugun proiektua da ikastola, eta ikastolen arteko elkarlanetik hezkuntza-eredu propioa eraiki duena, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan. Ikastolak antolaketa eredu propioa du, herriaren eta herritarren zerbitzura ari da, eta herritarrengandik hurbilen dagoen antolaketa eredu dauka: kooperatiba.

Proiektuen lanketa eta familien parte-hartzea Haur Hezkuntzan



FAMILIEN ETA IKASTOLAREN ARTEKO LOTURAK EZARRI ETA INDARTZEKO ASMOZ METODOLOGIA BERRITZAILEA JARRI DUTE ABIAN LAUDIO IKASTOLAN, HAUREN GARAPEN INTEGRALA ARDATZ.

Haur Hezkuntzan proiektua lan egiteko bidea eraiki dugu azken urte hauetan. Estrategia pedagogiko berritzaile honek haurren garapen integrala du ardatz, ikaskuntza akademikoa eta trebetasun sozio-emozionalak uztartuz. Haurrak, egiteko modu honetan, jakin-mina eta sormena sustatzen dituen ingurune batean murgiltzen dira eta gaietan sakontzeko euren errealitate hurbilean oinarritzen gara.

Proiektuek irudimena eta sormena pizten dituzte, haurrak modu originalean esploratzera eta adieraztera gonbidatuz. Talde-jardueren bidez, partekatzen eta gatazkak konpontzen ikasten dute. Horrez gain, autonomiaren garapena sustatzen dute.

Haur Hezkuntzako proiektuak mimoz diseinatuta daude haurren adinera egokituz. Hortaz, beraien inguru hurbiletik abiatzen gara proiektuak garatzerako orduan. Proiektuen barranean sartzeko asmoarekin familiek ere gurekin batera parte hartzen dute, horrela jakin-mina sortarazten diete haurrei.

Gure familiak ikastolara datozenean komunitate gisa duten nortasuna eta adierazten duten hurbiltasuna nabaria da. Argi dago, parte-hartze horrek gure ikasleentzako onurak eta abantailak dakartzala. Bi testuinguruen loturak haurren irakaskuntza era aktiboa sustatzen duelarik.

Lan eremu profesional desberdinetako gurasoak aritu dira Haur Hezkuntzan euren esperientzia azaltzen.

Aurten, garraioen proiektua lantzen egon garenean Mikel Etxebarria, suhiltzailea, hurbildu zaigu bere lanaren berri ematera, oraingoan 3 urteko haurrak izan dira esperientzia bizi izan dutenak. Euren aurpegia begiratzea besterik ez genuen egin behar bizipenaren ebaluaketa egiteko!

Beste urte batzuetan, gorputzaren proiektuari heltzeko Janire Etxebarria hurbildu zaigu eta hortzen eta ahoaren zaintzaren inguruan ohitura osasungarriak irakatsi dizkigu baita txantarra bezalako arazoak agertzea saihesteko trukoak ere. Umeak oso pozik eta erne egon dira.

Gorputza eta osasunarekin lotura egiteko beste hainbat familia hurbildu ziren gure proiektuen parte izateko; adibidez: Oihane Salcedo, fisioa, eta Isusko Ortuzar fisioterapeuta gisa diharduela Athletic Cluben. Beraiekin asko ikasi zuten eta gorputza ondo izatearen garrantziari erreparatu zioten. Horrez gain, Iban Estefaniak ere, osasunarekin lotuta Lanbide Heziketan diharduela bere esperientzia gurekin partekatu zuen. Berrito ere, haurren interesa eta proiektuekin lotura haurren errealitate hurbilera ekartzeko bidea eraikitzen lagundu ziguten.

Familia eta ikastolaren arteko loturak ezartzearen garrantzia haurren garapenerako ezinbestekoa da, esperientzia politak bizitzeaz gain gure izaeraren ardatza eta iparraren jabe bihurtzen gara.



Gu Ikastola, biharko Laudio eraikitzen

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

otsailaren 14ra arte

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

ATE IREKIAK: OTSAILAK 1

 **ikastola**

Iritzia



Behar dugun hezkuntzarako, independentzia!

JUNE PIKAZA PIZARRO
Ikamako kidea

Abenduaren 7an Ikama ikasle antolakundearen salto organizatibo eta politikoa aurkeztu genuen. Hezkuntza sistema osoan antolatzeke apustua egin dugu, estrategia bat eta bakarra eraikitzeke apustua, hain zuzen ere. Ikamak hezkuntza eremu osoari erreparatuko dio eta horretarako dinamika indartsu bat jarriko dugu martxan, Euskal Herriko hezkuntza sistema propioaren beharra aldarrikatuz, independentziaren aldarria lau haizetara zabalduz eta balio eraldatzaileak transmitituz.

Espainiar zein Frantziar estatuak gidatutako hezkuntza sistemek goia jo dute. Sistema kapitalista zisheteropatriarkala betikotu eta Euskal Herriaren asimilaziorako tresnak dira, gure herriaren eta euskal ikasleok jasaten dugun zapalkuntzaren erantzule zuzenak dira. Euskal Herria estaturik gabeko nazio zapaldua da, eta horrek gure herriaren asimilazioa eragin du, erabakitzeke eskubidea guztiz ukatu, eta Frantziar eta Espainiar estatuen proiektuaren menpe egonik. Horren ondorioz, euskarak, gure nortasunak, historiak zein gure kulturak kolokan jarraitzen dute, euskal estatu propio baten beharra azalean geratzen delarik.

Horren aurrean, Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa eraikitzea ezinbestekoa da, eta beraz, gure betebeharra da ikasle on artean, eta oro har, hezkuntza sistemaren osotasunean independentziaren aldeko aldarria zabaltzea. Izan ere, horrek eskainiko dio Euskal Herriari behar beste botere egitura hezkuntza sistema hemen eraikitzeke eta erabakiak hartzeke.

Hezkuntza sistema propioarekin lortuko dugu behar dugun hezkuntza sistema. Horrez gain, ezin dugu egungo egoera faxismoaren eta balio erreazionarioen gorakadarekin desloturik ulertu. Mundu mailan gertatzen ari da, eta hemen, Euskal Herrian, honen zantzuak ikusi ditzakegu. Sistemaren krisiaren aurrean, faxismoa indartzen den ideologia politikoa da. Larrialdi klimatikoaren ukazioa eta migrazioaren eta feminismoaren aurkako erreakzioa horren adibide dira. Faxismoa aldaketa kulturalaren terminoetan ulertu behar dugu, gizartea, bere osotasunean, ari baita faxismoaren ideia eta balioak bereganatzen. Mundu ikuskera aurrerakoi eta ezkertiar bat defendatzen dugunok, ordea, mehatxu gisa ulertu behar dugu. Horren aurka irmoki jokatu eta alternatibak mahaigaineratu behar ditugu.

Borroka feminista, euskararen aldeko borroka eta balore independentistak aldarrikatu behar ditugu. Faxismoa borrokatu eta ateak itxiko dizkion ikasle olatua osatu behar dugu. Hezkuntza sistema propioaren eskutik etorriko da hezkuntza euskaldun, feminista eta antikapitalista. Beraz, ozen diogu: behar dugun hezkuntzarako independentzia ezinbestekoa dugu.

Guzti horregatik, martxoaren 20an kaleak hartuko ditugu. Ikasleok ezkerretik eta independentistotik harrotuko den olatua sortuko dugu. Etorkizuneko hezkuntza sistemaren diseinurako balio eraldatzaileak transmititu eta hezkuntza sistema propioa aldarrikatuko dugu. Batu ikasle borrokara. Martxoaren 20an ikasleok kalera!



La Milagrosa Ikastetxea

Matrikula zabalik
Otsailaren 3tik 14ra

MATRIKULA ZAITEZ!

ZURE ZAIN GAUDE!

Jaioberriak - 16 urte arte

946720701

info@lamilagrosalaudio.eus








Amaurre Ikastetxea

Amaurre ikastetxea: begirada eta errealitate aldaketa, neurozientziaren ikuspuntutik



Amaurre Ikastetxea eskola txikia izateaz harro dago. Izan ere, konpromiso eta egonkortasun handiko tutoretza-taldea du, ikasleak ikasketa-prozesuan gidatzen eta laguntzen dituenak. Gainera, urteak daramatzagu neurozientzian formakuntza jasotzen, eta horrek aukera eman digu gure ikasleenganako begirada aldatzeko. **Neurozientzia** ezin da geletatik kanpo geratu, bere funtzionamendua ez ezagutzeak irakaskuntza-ekintzaren **oinarri zientifikoak** finkatzeko urrezko

aukera galtzea da. Egiatan, prestakuntza handia izan arren, gerta daiteke ikasleak ikaskuntza arazoak izatea; horren arrazoia da burmuin arrazionalaren gaitetik emozioa dagoela, eta horrek, ikastea eragozten die. Badakigu emozioaren bide neurologikoak kognitiboaren aurretik doazela, bide horiek lehen haurtzarotik bizitako esperientzien arabera heltzen direla, eta pertsonaren segurtasun pertsonala osatzen dutela. Horretarako, gaur egun, Amaurren, bateria batekin (DN-CAS) lan egiten dugu, gure ikasleen prozesamendu kognitiboa ezagutzeko eta, hala, izan ditzakeen zailtasunen jatorria zehazteko.

Prozesu kognitiboaren garrantzia

Prozesu kognitiboak maila neurologikoan ezagutzea funtsezkoa da ikaskuntza nola gertatzen den ulertzeko. Egunerok, arazo emozionalak, jarrera kontrolekoak edo oldarkortasunekoak ikusten ditugu. Horregatik, lantzen dugun gauzetako bat STOP seinalea da: gelditu eta pentsatu. "Kopia" edo "dragoia" deitzen dioguna ere erabiltzen dugu. Metafora honen bidez, ikasleak kontrolatu gabeko erreakzioa, jokabide emozional batengatik izan

dela sentitzen dute. Orduan, horri foku ematen diegu eta ikasleak laguntzen ditugu kontzientzia hartzen eta jokabide alternatibo bat ematen diegu, erreakzio hori menderatzeko hurrengo batean.

Begirada aldaketa

Ikasle batek gelan egin behar ez duena egiten duenean, laguntza eske ari zaigu. Hori begirada eta errealitate aldaketa bat da. Ikasleek beren motxila emozionala dute eta hau kudeatzen lagundu behar diegu, ikasgelan "presente" egotea nahi badugu. Hau da, arazoaren jatorria jo behar dugu.

Estimulazio kognitiborako programak

Frogatuta dago gure ongizate emozionalaren oinarria "autoestimua" edo "segurtasun pertsonala" deitzen dugun horretan datzala, eta hori "sentitu" egiten dela, ez "pentsatu". Badakigu Haur Hezkuntza etapa dela garrantzitsuena eta funtsezkoena maila emozional eta kognitiboan prebenitzeko eta esku hartzeko. Hori dela eta, Amaurre Ikastetxean, **estimulazio kognitiboko** bi programa prebentiborekin hasiko gara lanean, hiru, lau eta bost urteko haurrekin.

2 ETA 16 URTE BITARTEKO GELA ITUNDUAK

OTSAILAK 1 eta 10 ATE IREKIAK

HARTU HITZORDUA

AMAURRE
IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDATZIOA
IBESTAU ESKOLA

Kids&Us.
language school

Erasmus+

Iritzia



Gakoak

IGOR LUJANBIO
Euskara irakaslea

Gure ikastolan ardatz metodologiko batek azken bolada honetan indarra hartu du ikas-ibilbide osoan, diziplinartekotasunak. Curriculumeko diziplina edo jakintza-arlo batzuetan batera landu daitezkeen eduki, gai edo jardueren ezaugarria da, gai horiek arlo horiek guztiak ukitzera daramana aldi berean. Louis Whists soziologoak asmatu eta garatu zuen kontzeptua lehen aldiz duela 80 bat urte.

Ardatz metodologikoa bilakatuko badugu, koirakaskuntza aintzat hartzea ere ezinbestekoa izango da. Gelatan, kasu, interesgarria izango da aldi berean irakasle bat baino gehiago izatea (bi, hiru).

Hezkuntzak aurretik izango dituen erronkak biak.

Baina hauek inolako zentzurik ez dute izango euskara gakoa ez bada. Saiatu arren, asmatzen al dugu non txertatu? Zerbitzu horri, hots, trataera integral horri, nola atera etekin handiagoa?

Ezin dugu ahaztu etxetik euskaldunak ez diren ikasle askorekin ari garela; curriculuma etxeko hizkuntza ez den batean lantzen dugula. Momentu horretatik bertatik erreparatu behar diogu berariaz hizkuntzari. Gure gazteek askotan ez daukate euskara ezta eguneroko funtzioetarako ere, eta guk hizkuntza hori arlo akademiko konkretu bat garatu ahal izateko

eskatzen diegu. Arlo oro eta hizkuntza uztartzea ezinbestekoa da, edozein jakintza-arlotan. Historia edo Fisikako irakasle bat berdin adierazten al dira? Medikarengana joaten garenean honek berdin hitz egiten al du? Fruta-dendakoak? Agian euskaraz ari dira, baina arlo, ofizio edo lanbide bakoitzak bere hitz egiteko modua dauka, bere hizkera. Hortaz, guk irakasleok jakintza-arlo konkretu horretan arrakasta lortu nahi badugu, euskara ardatz bihurtu behar da. Nik Matematikan arrakasta izateko, Matematikako hizkeran ere hizkuntza landu behar dut, zenbakietatik edo formuletatik haratago, buruketetan, enuntziatu matematikoetan... Hizkera trinkoa egon daiteke, eta hori ulertu ahal izateko lanketa egin beharko dut, aurretiaz prestatutakoa. Adibidez: hitz polisemikoekin, Gorputz-Hezkuntzan orientazioa lantzen ari badira, "galdu" aditza izan daiteke "mendan galdu". Baina Matematikan "galdu" kenketa izan daiteke, "kendu" alegia. Hizkuntza modu anitzetan lan daiteke: justifikazioak egitean, konparazioak, hipotesiak formulatzean, etab. Ahoz, idatziz.

Azken batean arlo bakoitzak bere egiteko modua izanagatik, ezin dugu ahaztu arrakastarik ez dela izango hizkuntza kontuan hartu gabe.

Idea hau ondo uztartzea etorkizuneko erronka izango da. Bidea badago, sendotu dezagun beldurrik gabe gure erdigunea izan dadin. Ausardiaz. Ekintza ez da egiten dena bakarrik, egin gabe geratzen den balizko hori guztia ere ekintza da eta gure irakaspenen motxila betetzen laguntzen digu. Diziplinartekotasuna, gakoa.

**LAU
DIO
BHI
.eus**

- DBH eta BATXILERGO modalitate guztiak
- Eskola-saioak goizez
- Hedatze ekintzak arratsaldez
- Eleanitza Proiektua
- Erasmus + Proiektua
- Aniztasun trataera zabala
- Jantokia eta garraioa diruz lagundua
- LANBIDE HEZIKETA

**ATE
IREKIAK
OTSAILAREN
5ean
16:30ean**

**Helmuga
euskarri
ibilbidea
helburu!**



**25-26
MATRIKULA
ZABALIK!**

**OTSAILAREN
3TIK 14RA**